

**Osasun  
diagnostikoa / D·SS**  
Donostia·San Sebastián



**DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN**  
Osasun Sustapena  
Promoción de la Salud






## Osasunaren determinatzaile sozialak

Donostiako osasun diagnostikoa egiteko, **Dahlgren eta Whitehead-en osasunaren determinatzaile sozialen eredu hartu dugu kontuan.**

Determinatzaile horiek herritarrak zer inguruabarretan jaio, hazi, bizi, lan egin eta zahartzen diren hartzen dute aintzat, inguruabar horiek baitira gaixotze faktoreen % 75.

Hala ere, **osasunaren determinatzaile sozialak ez dira modu homogeneoan banatzen hirian, eta oso alde nabarmenak daude auzo batetik bestera, elkarrengandik oso gertu egonda ere.** Horrek desberdintasun sistematikoak sortzen ditu, besteak beste, gizarte maila, genero edo bizileku bateko eta besteko pertsonen artean, eta, horren ondorioz, kolektibo behartsuenek osasun egoera okerragoa izaten dute. Desberdintasun horiek bidegabeak eta saihetsezinak dira. Kontuan izanda Udalak baduela ahalmena bere politiken bidez determinatzaile horietako asko aldatzeko, desberdintasun horiek murriztearen aldeko apustua egitea da udal gobernuak biztanleria




osoaren osasuna hobetzeko har dezakeen estrategiarik onenetako eta eraginkorrenetako bat. Horretarako, osasunaren diagnostiko honek osasunaren determinatzaile sozialen argazkia eskaini nahi du, alderdi horien ahuleziak eta indarguneak ezagutzeko eta, hartara, estrategiak eta politikak modu eraginkorragoan bideratzeko.



1

Donostia, zenbakitan



## 1.1 Ezaugarri soziodemografikoak


### 1.1.1 | Biztanleria

#### Biztanleak, guztira



2012an, Donostiak 186.385 biztanle zituen. 2012. urtetik 2015. urtera bitartean, biztanle kopuruak behera egin zuen zertxobait, baina 2015. urtetik 2019. urtera bitartean gora egin du pixkanaka. **Gaur egun, 188.191 biztanle ditu hiriak; horietatik 99.373 (% 53 inguru) emakumeak dira, eta 88.818 gizonak (% 47 gutxi gorabehera); emakumeen eta gizonen proportzioa ez da nabarmen aldatu 2012tik.**

#### > Biztanleen bilakaera (2012-2019)



## 1.1 Ezaugarri soziodemografikoak


### 1.1.1 | Biztanleria

#### Biztanleak, guztira



Adin egiturari dagokionez, biztanleria piramidean ikus daitekeen bezala, emakumezkoetan, **proporzio handieneko adin taldea 45-64 urtekoa da (batez besteko adina, 48 urte)**, biztanleria osoaren % 30 inguru eta gutxi gorabehera biztanleria osoaren % 16; **eta gizonezkoetan, berriz, 40-59 urtekoa (batez besteko adina, 44 urte)**, gizonen guztizko biztanleriaren % 31 eta biztanleria osoaren % 14,5.

#### > Biztanleriaren piramidea




## 1.1 Ezaugarri soziodemografikoak

### 1.1.1 | Biztanleria

#### Biztanleria, auzoka



Hiria 18 auzok osatzen dute: **Amara Berri, Erdialdea eta Altza** dira biztanle gehien duten auzoak, eta Zubieta eta Igeldo, berriz, gutxien dutenak.



#### > Biztanleria 2019an, Donostiako auzoen arabera

AUZOA	BIZTANLEAK	BIZTANLEAK (%)
Guztira	188.191	100,0%
Aiete	14.375	7,6%
▲ Altza	20.452	10,9%
▲ Amara Berri	30.504	16,2%
Antiguo	14.546	7,7%
Añorga	2.278	1,2%
Ategorrieta-Ulia	4.062	2,2%
▲ Erdialdea	21.959	11,7%
Egia	14.950	7,9%
Gros	18.433	9,8%
Ibaeta	9.943	5,3%
▼ Igeldo	1.072	0,6%
Intxaurrondo	15.557	8,3%
Loiola	5.729	3,0%
Martutene	2.712	1,4%
Miracruz-Bidebieta	8.995	4,8%
Miramón-Zorroaga	2.269	1,2%
▼ Zubieta	284	0,2%

## 1.1 Ezaugarri soziodemografikoak

### 1.1.2 | Biztanleen adina

#### Adina, auzoka



Auzo horien barruan, desberdina da adinaren araberako egitura, hiri osoarekin alderatuta. **Hirian, batez besteko adina 46 urte da.** Ikus daitekeenez, Gros eta Erdialdea aldendu egiten dira joera nagusitik, auzo horietan batez besteko adina gertuago baitago 50 urteetatik; **Aiete, Ibaeta, Loiola eta Miramon auzoetako batez besteko adina, berriz, hurbilago dago 40 urteetatik.**

#### > Batez besteko adina 2019an, Donostiako auzoen arabera

AUZOA	GUZTIRA		EMAKUMEAK		GIZONAK	
	BIZTANLEAK	BATEZ BESTEKO ADINA	BIZTANLEAK	BATEZ BESTEKO ADINA	BIZTANLEAK	BATEZ BESTEKO ADINA
Totales	188.137	46	99.351	48	88.786	44
Aiete	14.375	42	7.276	43	7.099	41
Altza	20.452	45	10.457	46	9.995	44
Amara Berri	30.504	46	16.498	48	141.006	43
Antiguo	14.546	47	7.796	49	6.450	46
Añorga	2.278	45	1.157	46	1.121	43
Ategorrieta-Ulia	4.062	46	2.102	48	1.960	44
Erdialdea	21.959	49	12.037	51	9.922	46
Egia	14.950	47	8.057	49	6.893	45
Gros	18.433	49	10.107	51	8.326	46
Ibaeta	9.943	43	5.141	45	4.802	41
Igeldo	1.072	44	533	44	539	43
Intxaurrondo	15.557	45	7.914	47	7.643	43
Loiola	5.729	43	2.869	45	2.860	41
Martutene	2.712	44	1.390	46	1.322	43
Miracruz-Bidebieta	8.995	47	4.709	49	4.286	45
Miramón-Zorroaga	2.269	43	1.158	44	1.111	42
Zubieta	284	44	144	44	140	44



## 1.1 Ezaugarri soziodemografikoak

### 1.1.2 | Biztanleen adina


#### Adinekoak



**65 urtetik gorako biztanleak hiriko biztanleria osoaren % 25 dira ia.**

Azken tarte horretan, nabarmentzekoa da % 36 oso ahultzat jotzen direla, 85 urtetik gora baitituzte (biztanleria osoaren % 4,5).

> Adinekoak, adin tartearen arabera



## 1.1 Ezaugarri soziodemografikoak

### 1.1.2 | Biztanleen adina

#### Adinekoak



Arestian azaldutako informazioarekin bat, ikus daiteke hiria gero eta gehiago ari dela zahartzen: **2012. urtetik hona, zahartze tasak gorantz egin du; hala, 2019an, % 24koa izan zen, mendekotasun indizea % 57koa, eta zahartze indizea, berriz, ia 187koa.**

#### > Zahartze indizeak 2019an, Donostiako auzoen arabera

AUZOA	ZAHARTZE INDIZEA	ZAHARTZE TASA	MENDEKOTASUN INDIZEA	GAINZAHARTZE INDIZEA
Aiete	110,61	18,71	52,20	0,11
Altza	165,44	23,34	57,77	0,12
Amara Berri	175,27	24,56	60,80	0,19
Antiguo	226,93	26,94	61,83	0,18
Añorga	144,38	23,13	62,25	0,12
Ategorrieta-Ulia	167,75	24,20	60,30	0,23
Erdialdea	291,49	30,28	66,63	0,21
Egia	199,24	24,51	55,60	0,23
Gros	284,52	30,32	67,15	0,20
Ibaeta	122,13	17,76	45,39	0,17
Igeldo	133,93	20,99	55,59	0,13
Intxaurreondo	178,11	19,25	41,23	0,17
Loiola	133,13	19,08	48,19	0,16
Martutene	133,82	20,13	51,17	0,18
Miracruz-Bidebieta	192,86	25,24	59,63	0,20

186,8

24,29  
%

57,20

0,18

## 1.1 Ezaugarri soziodemografikoak


### 1.1.2 | Biztanleen adina

#### Haurrak



0 eta 16 urte bitartekoak biztanleria osoaren % 14 dira, gutxi gorabehera. 0tik 6 urtera bitarteko adin tartea talde horren % 37 da, eta biztanleria osoaren % 5. 7tik 12ra bitartekoak tarte horren % 37 dira, eta biztanleria osoaren % 5. 13tik 16ra bitartekoak, aurreko erreferentzien arabera, % 26 eta % 3,6 dira, hurrenez hurren.

#### > Haurrak, adin tartearen arabera



## 1.1 Ezaugarri soziodemografikoak


### 1.1.3 | Hazkunde tasa

2012-2019




Hazkunde tasari dagokionez, ikus daiteke 2012tik Loiola eta Añorga auzoetan izan dela hazkunde tasarik handiena, eta kontrakoa gertatu dela Zubieta, Egia eta Aiete auzoetan.

#### > Urtetik urterako hazkundea



#### > Urtetik urterako hazkundearen bilakaera




## 1.1 Ezaugarri soziodemografikoak

### 1.1.4 | Jaiotza tasa, heriotza tasa eta migrazio fluxua

Donostiako biztanleriaren bilakaera eta adin egitura jaiotzen, heriotzen eta migrazio fluxuen bilakaeraren ondorio dira. Lehenengo bi aldagaiei dagokienez, **azken urteetan jaio baino gehiago hil dira.** Hala, 2017an, 1000 biztanleko 6,95 jaiotza izan ziren, eta 1000 biztanleko 10,47 heriotza.

#### > Donostiako jaiotzen bilakaera



**Jaiotza tasa:** Urtebetean mila biztanleko zenbat jaio diren adierazten du.

**Ugalkortasun tasa:** Urtebetean batez beste zenbat jaio diren adierazten du, ugaltzeko adinean (15 urtera 49 urtera) dauden 1000 emakumeko.

**Joera indizea:** otik 4 urtera bitarteko haurren ehuneko, 5-9 urtekoekin alderatuta.  $(0-4 \text{ urteko biztanleak} / 5-9 \text{ urteko biztanleak}) * 100$ .

## 1.1 Ezaugarri soziodemografikoak

### 1.1.4 | Jaiotza tasa, heriotza tasa eta migrazio fluxua

#### Jaiotza tasa

Jaiotza tasari dagokionez, **Aiete, Igeldo eta Añorga** auzoek dute **tasarik handiena**; Erdialdea, Intxaurrondo eta Antigua auzoek, ostera, txikiena.

#### > Jaiotza tasa, Donostiako auzoen arabera

AUZOA	JAIOTZA TASA	UGALKORTASUN TASA	JOERA INDIZEA
▲ Aiete	8,00	37,70	85,75
Altza	6,41	30,88	83,49
Amara Berri	7,24	36,35	92,29
▼ Antiguoa	5,43	24,56	90,84
▲ Añorga	8,34	41,13	74,42
Ategorrieta-Ulia	7,63	38,75	84,94
▼ Erdialdea	4,78	23,97	83,44
Egia	6,56	30,62	93,27
Gros	6,73	34,02	93,44
Ibaeta	6,54	29,89	77,09
▲ Igeldo	12,13	59,63	82,69
▼ Intxaurrondo	5,79	28,65	79,04
Loiola	7,51	33,99	88,89
Martutene	7,37	34,25	82,41
Miracruz-Bidebieta	5,67	28,24	86,35
Miramón-Zorroaga	6,61	31,38	74,40
Zubieta	7,04	29,41	66,67


## 1.1 Ezaugarri soziodemografikoak

### 1.1.4 | Jaiotza tasa, heriotza tasa eta migrazio fluxua

#### Heriotza tasa

Heriotza tasa handitu egin zen 2014tik 2016ra; urte horretatik 2018ra bitartean, berriz, jaitsi egin zen. Era berean, heriotza gehien Erdialdea, Amara Berri eta Gros auzoetan izaten da; hori bat dator biztanleria tasarekin eta biztanle horien adinarekin.

> Heriotza tasaren bilakaera Donostian (2012-2019)




## 1.1 Ezaugarri soziodemografikoak

### 1.1.4 | Jaiotza tasa, heriotza tasa eta migrazio fluxua

#### Migrazio fluxua

Migrazio fluxuari dagokionez, beheranzko joera nabari da 2012tik 2014ra; urte horretatik aurrera, bilakaera positiboa izan da, 2019. urtera arte.

#### > Atzerriko biztanleriaren bilakaera, Donostian (2012-2019)






## 1.1 Ezaugarri soziodemografikoak

### 1.1.4 | Jaiotza tasa, heriotza tasa eta migrazio fluxua

#### Migrazio fluxua

Ikusten denez, migratzaile gehienak 25 eta 44 urte bitartekoak dira, eta emakumeak gehiago dira gizonak baino.

#### > Atzerritarren piramidea




## 1.1 Ezaugarri soziodemografikoak

### 1.1.5 | Ikasketa maila

2012az geroztik, **bigarren mailako ikasketen, lanbide ikasketen eta unibertsitate ikasketen mailak gora egin du.** Hala ere, nahiz eta joera orokorra positiboa izan, desberdintasun handiak ikus daitezke hirian auzoen artean.

#### > Ikasketa mailaren indizeak



## 1.1 Ezaugarri soziodemografikoak

### 1.1.5 | Ikasketa maila

Unibertsitate ikasketei dagokienez, nabarmentzekoa da zer desberdintasun dagoen Aiete eta Erdialdea auzoen eta Altzaren artean; izan ere, lehenengo bi auzoetan, % 30 inguru dira unibertsitate ikasketak dituzten biztanleak, eta Altzan, berriz, % 9.

#### > Ikasketa mailaren indizeak


AUZOA	UNIBERTSITATE IKASKETAK DITUZTEN PERTSONEN INDIZEA	BIGARREN MAILAKO LANBIDE IKASKETAK DITUZTEN PERTSONEN INDIZEA	BIGARREN MAILAKO IKASKETA OROKORRAK DITUZTEN PERTSONEN INDIZEA	LEHEN MAILAKO IKASKETAK DITUZTEN PERTSONEN INDIZEA
Aiete	33,2%	10,9%	20,2%	35,7%
Altza	9,1%	15,4%	18,2%	57,3%
Amara Berri	30,3%	12,1%	21,7%	35,8%
Antiguo	32,0%	11,6%	20,1%	36,2%
Añorga	19,8%	17,5%	18,9%	43,8%
Ategorrieta-Ulia	27,7%	11,3%	20,0%	40,9%
Erdialdea	33,4%	11,6%	22,2%	32,8%
Egia	22,4%	13,9%	19,5%	44,1%
Gros	29,6%	12,2%	21,8%	36,4%
Ibaeta	29,9%	12,1%	20,0%	38,0%
Igeldo	22,2%	13,2%	17,8%	46,8%
Intxaurreondo	17,1%	15,6%	21,4%	45,9%
Loiola	19,7%	14,1%	20,8%	45,4%
Martutene	12,5%	15,5%	18,0%	54,0%
Miracruz-Bidebieta	15,0%	14,6%	20,2%	50,1%
Miramón-Zorroaga	30,6%	9,8%	18,8%	40,8%
Zubieta	16,9%	19,7%	18,0%	45,4%

## 1.2 Osasun egoera

### 1.2.1 | Bizi itxaropena

2013. urtean, hiriaren bizi itxaropena 85,6 urtekoa izan zen emakumezkoetan, eta 78,4 urtekoa gizonezkoetan. Hala ere, alde handia dago auzoen artean; bizi itxaropen txikiena ekialdeko barrutiak du (Altza, Intxaurrenondo eta Bidebieta auzoak), bai emakumeetan, bai gizonetan.

#### > Bizi itxaropena, auzoaren arabera



## 1.2 Osasun egoera

### 1.2.1 | Hautemandako osasuna

Bai 2013an eta bai 2018an, hiriko biztanle gehienek adierazi zuten haien ustez osasuna ona edo oso ona zutela.

Azken datuek erakusten dutenez, aldea handia ez den arren, osasuna ona edo oso ona dutela uste duten emakumeen proportzioa txikiagoa dira gizonena baino. Nabarmentzekoa da 75 urtetik gorakoen artean, donostiarren % 60k baino gehiagok uste duela haien osasun ona dela.

#### > Oro har hautemandako osasuna, sexuaren eta adinaren arabera

	2013					2018				
	Oso ona	Ona	Erdipurdikoa	Txarra	Oso txarra	Oso ona	Ona	Erdipurdikoa	Txarra	Oso txarra
<b>Guztira</b>	24,1	57,8	13,9	3,4	0,9	17,2	69,9	10,5	2,5	0,0
<b>15-24</b>	48,4	42,4	9,2	0,0	0,0	48,7	51,3	0,0	0,0	0,0
<b>25-44</b>	41,8	56,8	1,4	0,0	0,0	16,6	77,4	6,0	0,0	0,0
<b>45-64</b>	14,7	64,3	17,7	2,7	0,5	15,6	70,7	11,9	1,9	0,0
<b>65-74</b>	12,8	61,1	20,9	0,0	5,3	13,5	70,3	11,3	4,9	0,0
<b>&gt;=75</b>	2,0	48,7	28,5	20,7	0,0	5,4	6,9	21,6	8,1	0,0
<b>Total</b>	18,1	64,5	13,5	3,1	0,8	20,6	65,1	10,7	3,1	0,5
<b>15-24</b>	40,2	59,8	0,0	0,0	0,0	50,5	49,5	0,0	0,0	0,0
<b>25-44</b>	28,9	62,3	8,8	0,0	0,0	26,4	69,1	3,2	1,3	0,0
<b>45-64</b>	14,0	74,5	11,5	0,0	0,0	15,5	67,4	9,9	5,7	1,5
<b>65-74</b>	7,8	69,5	18,5	4,1	0,0	16,6	67,5	15,9	0,0	0,0
<b>&gt;=75</b>	3,1	48,5	28,6	14,9	5,0	7,0	63,7	24,3	5,0	0,0
<b>Total</b>	20,8	61,5	13,7	3,2	0,9	19,1	67,3	10,6	2,8	0,3
<b>15-24</b>	44,0	51,8	4,3	0,0	0,0	49,8	50,2	0,0	0,0	0,0
<b>25-44</b>	34,7	59,9	5,5	0,0	0,0	21,7	73,1	4,5	0,7	0,0
<b>45-64</b>	14,4	69,5	14,6	1,4	0,2	15,5	69,0	10,9	3,9	0,8
<b>65-74</b>	10,1	65,7	19,6	2,3	2,4	15,2	68,7	13,9	2,2	0,0
<b>&gt;=75</b>	2,7	48,6	28,6	17,0	3,2	6,4	64,2	23,3	6,2	0,0



## 1.2 Osasun egoera

### 1.2.1 | Hautemandako osasuna

Gizarte klaserako, 5 kategoriatan taldekatutako sailkapen hau erabiltzen da:

- I** Unibertsitateko lizentziei lotutako lanbideak.
- II** Unibertsitateko diplomei lotutako lanbideak, laguntza teknikoko profesionalak, kirolariak eta artistak.
- III** Tarteko lanbideak eta norberaren konturako lanak.
- IV** Lan tekniko kualifikatuetan eta erdi kualifikatuetan diharduten gainbegirale eta langileak.
- V** Kualifikaziorik gabeko langileak.

2013ko datuei dagokienez, ikus daiteke gizarte klaseak gora egin ahala osasun egoeraren pertzepzioa hobetu egin dela; joera horri eutsi egin zaio 2018an.

#### > Hautemandako osasuna, sexuaren eta gizarte klasearen arabera

	2013					2018					
	Oso ona	Ona	Erdipurdikoa	Txarra	Oso txarra	Oso ona	Ona	Erdipurdikoa	Txarra	Oso txarra	
E ♀	I	28,8	62,4	8,0	0,7	0,0	40,6	53,4	4,4	1,6	0,0
	II	22,5	65,9	8,8	2,8	0,0	24,4	55,0	17,7	2,8	0,0
	III	18,7	66,3	10,6	3,0	1,4	16,01	69,6	9,0	3,8	1,6
	IV	7,3	68,8	20,4	2,8	0,7	13,2	71,2	12,4	3,2	0,0
	V	22,0	55,4	14,3	6,4	1,9	23,0	62,9	11,1	3,1	0,0
G ♂	I	43,9	42,4	12,2	0,7	0,7	17,7	82,3	0,0	0,0	0,0
	II	14,0	72,8	9,0	2,1	2,1	29,0	54,9	14,7	1,4	0,0
	III	18,4	64,2	12,2	5,2	0,0	15,0	76,3	7,7	1,0	0,0
	IV	16,7	62,7	16,1	2,9	1,6	17,2	64,6	15,0	3,2	0,0
	V	27,4	31,5	27,3	13,7	0,0	9,9	72,4	10,4	7,3	0,0

## 1.2 Osasun egoera

### 1.2.3 | Osasun mentala

Hautemandako osasun mentalari dagokionez, ikus daiteke 2018an biztanleria osoaren pertzepzioa hobetu egin dela, 2013koarekin alderatuta; hala ere, sexuen arteko konparazioan, **emakumeen osasun mentala okerragoa da gizonena baino, bai 2013an, bai 2018an. Nabarmentzekoa da 2013tik 2018ra bitartean, 15 eta 64 urte bitarteko adin tartean, osasun mentala hobetu egin dela; 65 eta 75 urte bitarteko pertsonetan, berriz, beheranzko joera nabari da.**

#### > Hautemandako osasun mentalaren indizea (MHI-5)<sup>1</sup>, sexuaren eta adinaren arabera

	2013			2018		
	Gizona	Emakumea	Guztira	Gizona	Emakumea	Guztira
15-24	72,2	72,4	72,3	82	75,6	78,2
25-44	75,6	69,2	72,1	78,3	80,9	79,7
45-64	71,6	69,7	70,6	75,8	71,3	73,4
65-74	77,7	71,5	74,3	75,3	70,3	72,5
>75	70	69	69,4	73,7	67,5	69,8
Guztira	73,5	69,9	71,5	76,7	73,3	74,8

<sup>1</sup> Mental Health Inventory-5. Antsietatea, depresioa, kontrol emozionala eta oreka afektiboa balioesteko diseinatu zen. Emaizak otik 100era bitartean dabilta, eta, horren arabera, zenbat eta altuagoa izan emaitza, hobe da osasun mentala.

## 1.2 Osasun egoera

### 1.2.3 | Osasun mentala

2018an, nabarmen jaitsi da antsietatea eta depresioa dituzten herritarren ehunekoa, 2013koarekin alderatuta; proportzioa % 19tik % 6ra jaitsi da, gutxi gorabehera. Sintoma horiek dituzten emakumeen kopurua handiagoa da gizonena baino, eta aldea are handiagoa da 2018an, 2013arekin alderatuta. 2018an, **sintoma horiek adin tarte hauetan agertu ziren gehienik: 15-24 urteko eta 45-64 urteko emakumeetan, eta 45-64 urteko eta 75 urtetik gorako gizonetan.**

Era berean, noizbait beren buruaz beste egitea pentsatu duten herritarren proportzioa **nabarmen jaitsi da 2013koarekin alderatuta**, eta, generoari dagokionez, ia ez da alderik hauteman 2018an.

#### > Antsietate eta depresio sintomen indizea, sexuaren eta adinaren arabera

	2013						2018					
	15-24	25-44	45-64	65-74	>75	Total	15-24	25-44	45-64	65-74	>75	Total
E ♀	19,3	21,3	17,6	22	23,3	20,4	9,5	7,1	10,8	5,7	14	9,7
G ♂	22,9	11,2	20,2	14,8	27,3	18	2,6	1,4	9,4	5,2	7,1	5,7
Biak ♂♀	21	16,8	18,9	18,7	24,7	19,3	6,7	4,4	10,2	5,4	11	7,9

#### > Noiz edo noiz beren buruaz beste egitea pentsatu duten biztanleen %, sexuaren eta adinaren arabera

	2013						2018					
	15-24	25-44	45-64	65-74	>75	Total	15-24	25-44	45-64	65-74	>75	Total
E ♀	0	9,6	10,1	1,5	2,7	6,6	0	0	5,8	2,5	1,6	2,5
G ♂	0	3,2	9,4	0	4,6	4,9	2,6	0	3,7	8,7	0	2,7
Biak ♂♀	0	6,7	9,8	0,8	3,4	5,8	1	0	4,8	5,3	1	2,6



## 1.2 Osasun egoera

### 1.2.4 | Morbi hilkortasuna

#### Heriotzak: kausarik ohikoenak

Donostiako heriotzen arrazoi nagusiak tumoreak eta zirkulazio sistemako gaixotasunak dira.

#### > Heriotzak, arrazoiaren arabera

	2014	2015	2016	2017
<b>Tumoreak</b>	551	554	540	568
<b>Zirkulazio sistemako gaixotasunak</b>	421	483	457	529
<b>Arnas sistemako gaixotasunak</b>	202	174	172	173
<b>Digestio sistemako gaixotasunak</b>	95	90	66	74
<b>Kanpoko kausak</b>	65	73	80	71
<b>Gainerako gaixotasunak</b>	552	634	570	552

## 1.2 Osasun egoera

### 1.2.4 | Morbi hilkortasuna

#### Gaixotasun kronikoak


Gaixotasun kronikoei dagokienez, generoaren eta adinaren arabera, emakumeek tiroidearekin, artrosiarekin eta bizkarreko minarekin lotutako kronikotasun handiagoa dute. Hala ere, hipertentsioarekin, kolesterolarekin, diabetesarekin eta bihotzeko arazoekin lotutako kronikotasuna gehiago agertzen da gizonezkoetan emakumezkoetan baino.

> Arazo kroniko ohikoenak dituzten biztanleen %, sexuaren eta adinaren arabera

	2013		2018	
	E ♀	G ♂	E ♀	G ♂
Hipertentsioa	14,0	15,8	14,3	17,0
Kolesterol altua	9,9	10,4	10,6	11,2
Tiroidea	7,3	0,8	6,4	1,2
Diabetesa	3,7	6,4	3,0	4,9
Bihotzeko arazoak (ez bihotzekoa)	4,7	5,8	5,3	8,6
Artrosia	6,8	3,6	12,3	6,6
Bizkarreko mina	3,0	1,3	8,7	7,2

# 2

## Bizi estiloak



## 2.1 Jarduera fisikoa eta sedentarismoa

2013az geroztik, ariketa fisikoa egiteko ohitura nabarmen areagotu da ia adin tarte guztietan, 65-74 urte bitarteko pertsonetan izan ezik, hor behera egiten baitu bi sexuetan. Sexuen arabera, adin goiztiarreneko emakumeek gizonek baino kirol gutxiago egiten dute, baina emakumeen kirol jarduera areagotu egiten da 65 urtetik aurrera.

> Aisialdian ariketa fisikoa egiten duten biztanleen %, sexuaren eta adinaren arabera


	2013			2018		
	G ♂	E ♀	Biak ♂♀	G ♂	E ♀	Biak ♂♀
16-24	62,5	28,5	44,2	85,5	69,8	76,1
25-44	37	30,7	33,5	71,9	53,3	62,2
45-64	40,1	42,9	41,5	61,5	47,2	53,9
65-74	68,3	70,3	69,4	65	67,2	66,2
>=75	46,5	38,2	41,2	66,4	77,1	73,1
Guztira	46	41	43,3	67,8	59,5	63,2

## 2.1 Jarduera fisikoa eta sedentarismoa


### 2.1.1 | Donostia Kirolaren erabiltzaileak

2018an, Kirol Txartelaren abonatuak kopuruak gora egin zuen zertxobait, eta joera egonkorra izan da azken lau urteetan. **Udalaren kirol instalazioren batean (Kirol Txartela gehi Zuhazti, Tenis, Manteo, Mons eta Pio Barojako harpidedunak) abonatuta dagoen populazioaren ehunekoa % 30etik gorakoa da.**

> Kirol Txartelaren abonatuak




> Udal kirol instalazio guztietako abonatuaren %, biztanleriari dagokionez




## 2.1 Jarduera fisikoa eta sedentarismoa

### 2.1.1 | Donostia Kirolaren erabiltzaileak

#### > Abonatuak, modalitatearen arabera




#### > Abonatuaren banaketa (%), auzoka





## 2.1 Jarduera fisikoa eta sedentarismoa

### 2.1.1 | Donostia Kirolaren erabiltzaileak

> Abonatuen %, generoaren arabera



> Abonatuen banaketa (%), adinaren arabera




## 2.1 Jarduera fisikoa eta sedentarismoa

### 2.1.2 | Kirol instalazioak

Hirian kirol instalazioek, 600 metrotik beherako distantzian duten biztanleria ehunekoa kontuan hartuz gero, ez dute banaketa bera, auzoen arabera. Igeldo eta Miramon-Zorroaga dira ratio horretan biztanle gutxien dutenak.

> % kirol ekipamenduetarako sarbidea 600 metrora edo gutxiagora duten biztanleak






## 2.1 Jarduera fisikoa eta sedentarismoa

### 2.1.3 | Bizikletaren erabilera

Azken urteotako datuak kontuan hartuta, **bizikleta bidezko mugikortasuna finkatu egin da, eta goranzko joera argia du.** Hiriko hainbat tokitan egindako ikusizko zenbaketaren arabera, bizikletaz mugitzen diren pertsonetatik % 38 emakumeak dira, eta % 62 gizonak.

#### > Eguneko desplazamendu kopurua



## 2.1 Jarduera fisikoa eta sedentarismoa

### 2.1.4 | Berdeguneak eta hondartzak


Hiriak, Udalak eskaintzen duenaz gain, badu jarduera fisikoa eta kirola egiteko eskaintza propio eta natural bat.

Datu orokorretan 2,5 milioi m<sup>2</sup> baino gehiagoko hiri berdegunea izanda (parkeak, lorategiak...), hiriak aise gainditzen ditu berdeguneen m<sup>2</sup>/biztanle ratioen gaineko gomendioak (Osasunaren Mundu Erakundeak 10 eta 15 m<sup>2</sup> arteko balioak proposatzen ditu).

Hala ere, datu bereizietan desberdintasun handiak ikusten dira, auzoka. Auzo gehienek aise gainditzen dute 10 m<sup>2</sup>/biztanleko helburu desiragarria, baina ez denek: Grosek du emaitzarik baxuena (0,54 m<sup>2</sup>/biztanle), eta Amarak ondoren (6,12 m<sup>2</sup>/bizt.)

**Horrez gain, hiriak hiru hondartza ditu, eta hiruretan egiten dira, urte osoan, askotariko ur kirolak.**

#### > Berdeguneak, biztanleko



**Hiria berdegune/biztanle ratioen oso gainerik dago, baina huts egiten du Grosen eta Amaran.**

## 2.2 Dieta eta elikadura

### 2.2.1 | GMI datuak

**Gorputz masaren indizea (GMI) handiagoa da, bi sexuetan, gizarte klaserik apalenetan.**

I. klasetik V. klasera bitarteko eskalan aurrera egin ahala, handitu egiten da gehiegizko pisua duten pertsonen ehunekoa, sexua edozein dela ere, IV. klasera arte.

> Biztanleriaren banaketa, GMIren arabera, sexua eta gizarte klasea aintzat hartuta

	2013				2018				
	Eskasa	Normala	Gehiegizko pisua	Obesitatea	Eskasa	Normala	Gehiegizko pisua	Obesitatea	
E ♀	I	10,1	62,7	25,6	1,6	5,4	72,7	21,9	0
	II	2,3	77,2	16,6	3,8	20,5	57,9	15,2	6,4
	III	3,9	61,5	29,9	4,7	8,1	61,5	23,3	7,1
	IV	3,5	55,3	26	15,2	2,5	45,7	42,7	9,1
	V	1,2	57,7	29,4	11,7	0	54,7	36,2	9,1
G ♂	I	0	48,7	45,7	5,6	2,6	52,3	39,4	5,6
	II	0	35,8	51,9	12,3	3,8	50,3	40,7	5,2
	III	2,1	44,5	39,4	13,9	0	46,1	45,7	8,2
	IV	0,5	37,4	52	10,1	0,7	40,6	49,2	9,5
	V	9,9	22,1	61,7	6,3	3,1	51,4	31,7	13,8
Biak ♂♀	I	4,8	55,3	36,2	3,7	4,3	64,4	29	2,3
	II	1,5	63	28,8	6,7	13,1	54,6	26,5	5,8
	III	3	52,8	34,8	9,4	4,7	55	32,8	7,6
	IV	2,1	46,6	38,7	12,7	1,6	43,3	45,8	9,3
	V	2,6	51,9	34,7	10,8	1,4	53,1	34,1	11,3

Gizarte klaserako, 5 kategoriatan taldekatutako sailkapen hau erabiltzen da:

I Unibertsitateko lizentziei lotutako lanbideak.

II Unibertsitateko diplomei lotutako lanbideak, laguntza teknikoko profesionalak, kirolariak eta artistak.

III Tarteko lanbideak eta norberaren konturako lanak.

IV Lan tekniko kualifikatuetan eta erdi kualifikatuetan diharduten gainbegirale eta langileak.

V Kualifikaziorik gabeko langileak.

## 2.2 Dieta eta elikadura

### 2.2.1 | GMI datuak

Obesitateari dagokionez, **emakumeen kasuan, emaitza okerrenak 75 urtetik aurrera izaten dira; gizonen kasuan, berriz, 45 eta 64 urte bitartean.**

2013tik 2018ra, **GMIren hazkunde nabarmenena 25 eta 44 urte bitarteko emakumeen artean izan da; 45 eta 64 urte bitartekoen artean, berriz, gutxitu egin da. Gizonen kasuan, adin tarte guztietan gutxitu da GMIa.**

#### > Biztanleriaren banaketa, GMIaren arabera, sexua eta adina aintzat hartuta

	2013				2018				
	Eskasa	Normala	Gehiegizko pisua	Obesitatea	Eskasa	Normala	Gehiegizko pisua	Obesitatea	
E ♀	16-24	15,1	81,8	3,1	0	23,2	76,8	0	0
	25-44	2,9	65,1	26,7	5,2	10,3	42	40,1	7,6
	45-54	2,8	67,5	21,4	8,3	3,1	74,2	16,7	6,1
	55-74	6,1	52,6	28	13,3	4,2	42,7	43,4	9,8
	>=75	1,9	38,9	45	14,3	0	45,8	45,5	8,7
	<b>Total</b>	<b>4,3</b>	<b>61,3</b>	<b>26,1</b>	<b>8,3</b>	<b>6,6</b>	<b>57,1</b>	<b>29,5</b>	<b>6,8</b>
G ♂	16-24	4,3	86,1	9,6	0	15,1	76,6	8,4	0
	25-44	0	49,6	48,8	1,6	0	53,1	43,7	3,2
	45-54	1	35,4	48,2	15,4	0	43,8	45,9	10,3
	55-74	1,3	20	65,2	13,5	0	21,5	64,1	14,4
	>=75	1,4	27,8	51,7	19,1	0	41,2	43,6	15,2
	<b>Total</b>	<b>1,1</b>	<b>41,5</b>	<b>47,3</b>	<b>10,1</b>	<b>1,4</b>	<b>46,1</b>	<b>43,9</b>	<b>8,6</b>
Biak	16-24	10,1	83,8	6,1	0	19,9	76,7	3,4	0
	25-44	1,6	58,2	36,5	3,6	5,3	47,3	41,8	5,5
	45-54	1,9	51,7	34,61	11,8	1,6	59,8	30,5	8,1
	55-74	3,9	37,9	44,7	13,4	2,3	33,3	52,6	11,8
	>=75	1,7	34,9	47,4	16	0	44	44,7	11,2
	<b>Total</b>	<b>2,9</b>	<b>52,3</b>	<b>35,7</b>	<b>9,1</b>	<b>4,3</b>	<b>52,2</b>	<b>35,9</b>	<b>7,5</b>

## 2.2 Dieta eta elikadura


### 2.2.2 | Elikagaiak kontsumitzeko ohiturak

#### Erosketa non egiten den

Establezimendu motari dagokionez, aldatu egiten da elikagai motaren arabera. Auzo dendak eta hiri supermerkatuak dira kasu guztietan gehien bisitatzen diren establezimenduak; hain zuzen, **erosketa egiteko establezimenduen % 80 dira.**

> Erosketa bizi diren auzoan egiten duten biztanleen %

BAI =  
EZ =



## 2.2 Dieta eta elikadura

### 2.2.2 | Elikagaiak kontsumitzeko ohiturak

**Fruta auzoko dendetan erosten da gehiago (% 52), eta galkorrak ez diren produktuak, berriz, supermerkatuetan.**

> Elikagaiak, eskuarki, zer establezimendutan erosten diren (%)

	Fruta	Barazkiak	Haragia	Arraina	Galkorrak ez diren produktuak
Auzoko dendak	52	45	43	44	6
Supermerkatuak	36	33	40	35	79
Merkatuak (Bretxa, San Martin, merkatu ibiltaria)	7	14	8	13	1
Merkataritza zentroak edo hipermerkatuak	5	5	6	5	13
Asteko otarrak	0	1	0	0	0
Bestelakoak	0	0	1	1	1
Ez dut erosten	0	2 <sup>1</sup>	3 <sup>2</sup>	2 <sup>3</sup>	0

<sup>1</sup> Ez dute barazkirik erosten, baratzea dutelako.

<sup>2</sup> Ez dute haragirik erosten, arrazoi hauetako batengatik: ez zaie gustatzen, ez dute jaten edo begetarianoak dira.

<sup>3</sup> Ez dute arrainik erosten, arrazoi hauetako batengatik: ez zaie gustatzen, ez dute jaten, autokontsumoa egiten dute edo zuzenean lonjan erosten dute.

Fruta kontsumitzeari dagokionez, donostiarren erdiek egunean ale bat edo bi jaten dute, eta % 38k hiru edo gehiago.

> Fruta kontsumoa (%)

	Fruta
3 edo gehiago egunean	38%
1-2 egunean	47%
4 astean	7%
1-2 astean	6%
Frutarik ez dute jaten <sup>1</sup>	3%

<sup>1</sup> Ez zaie gustatzen, ez dute jateko gogorik edo ezin dute jan osasunagatik

## 2.2 Dieta eta elikadura

### 2.2.2 | Elikagaiak kontsumitzeko ohiturak

Barazkiei dagokienez, pertsonen erdiek egunero kontsumitzen dituzte, eta % 26k, gutxienez, astean hiru aldiz. Haragia eta arraina, normalean, 2-3 aldiz jaten dira astean. Ia pertsonen erdiek astean bitan kontsumitzen dituzte lekaleak, eta % 25ek hiru aldiz. % 23k astean behin bakarrik jaten ditu. Azkenik, zerealak astean behin edo bitan kontsumitzen dira, baina % 22k hiru aldiz kontsumitzen ditu.

> Barazkien, haragiaren, arrainaren, lekaleen eta zerealen kontsumoa %

	Barazkiak	Haragia	Arraina	Lekaleak	Zerealak
Egunero	52	15	10	6	5
3 aldiz astean	26	31	33	25	22
2 aldiz astean	19	34	42	44	32
1 astean	3	14	13	23	37
Ez du barazkirik jaten	0	7 <sup>1</sup>	2 <sup>2</sup>	2 <sup>3</sup>	5 <sup>4</sup>

<sup>1</sup> Ez zaio gustatzen, osasun arrazoiak ditu, begetarianoa da, ez du hori jateko gogorik, animalien aurkako tratu txarren kontra dago.

<sup>2</sup> Ez zaio gustatzen, prezioagatik ez du kontsumitzen, begetarianoa da.

<sup>3</sup> Ez zaio gustatzen, ezin du osasun arrazoiengatik, erosotasunagatik.

<sup>4</sup> Ez zaio gustatzen, ezin du osasunagatik, ez du ohiturarik, nahiago ditu beste gauza batzuk.

## 2.2 Dieta eta elikadura

### 2.2.2 | Elikagaiak kontsumitzeko ohiturak

Beste elikagai batzuei dagokienez, pertsonen % 32k egunero kontsumitzen ditu gozokiak. % 68k ez du freskagarri azukredunik hartzen. Elikagai frijituak astean 1-3 aldiz kontsumitzen dira, gehienbat, etxean % 68an. Gainera, biztanleen % 35ek astean behin kontsumitzen du aurrez prestatutako janaria edo etxera bidaltzen dutena, baina %61ek ez du halako produkturik kontsumitzen.

#### > Freskagarrien, gozokien, frijituen, aurrez prestatutako janarien kontsumoa %

	Freskagarri azukredunak	Gozokiak	Elikagai frijituak	Aurrez prestatutako janaria / erositako janari prestatua / etxera bidaltzen duten janaria
Egunero	6	32	2	1
3 aldiz astean	1	13	13	2
2 aldiz astean	3	11	18	1
1 astean	22	20	35	35
Ez du jaten	68	24	32	61



## 2.3 Mendekotasunak

### 2.3.1 | Alkohol kontsumoa

2013tik 2018ra, datu orokorretan, murriztu egin da eguneko alkohol kontsumoa. Hala ere, sexuaren arabera, gizonezkoetan gutxitu da gehien; emakumezkoetan, ostera, pixka bat handitu da. **Gizonezkoetan zein emakumezkoetan, 75 urtetik gorakoek kontsumitzen dute egunean alkohol gehien.**

#### > % Alkohol kontsumoa, sexuaren eta adinaren arabera

	Egunero		4-6 aldiz asteen		2-3 aldiz asteen		1 aldiz asteen		15 egunean behin		1 aldiz hilabetean		1 aldiz baino gutxiago hilabetean		Ez dut edan azken 12 hilabeteetan	
	2013	2018	2013	2018	2013	2018	2013	2018	2013	2018	2013	2018	2013	2018	2013	2018
<b>E</b> ♀																
16-24	0	0	0	0	3,5	7,1	9,3	32,8	18,4	25,8	9	10,3	19,2	10,3	40,6	13,7
25-44	0,9	5,8	7	0	16,6	12,5	13,9	26,4	9,1	1,6	5	2,8	7,2	26,5	40,5	24,4
45-54	14,9	18,9	6,4	2,7	19,1	21,5	15,5	13,4	6,8	6,2	5,2	5,1	10,9	15,3	21,2	16,8
55-74	32,5	16,7	0	0	1,1	12,2	12,3	8,2	2,7	3,5	9,5	3,4	6,5	27,5	35,4	28,5
>=75	30,1	29,5	0	3,1	2,4	7,5	3,6	4,2	1,6	1,3	2,8	1,3	10,5	18,8	49	34,2
<b>Guztira</b>	<b>14,4</b>	<b>15,3</b>	<b>4</b>	<b>1,5</b>	<b>11,6</b>	<b>13,8</b>	<b>12</b>	<b>16,3</b>	<b>7,1</b>	<b>6</b>	<b>5,7</b>	<b>4,2</b>	<b>9,9</b>	<b>19,8</b>	<b>35,3</b>	<b>23,2</b>
<b>G</b> ♂																
16-24	6,5	0	0	0	14,4	5,2	13,7	26	10,7	19,6	18,4	7,8	8,5	9,8	27,8	31,6
25-44	7,9	0	0	0	42,9	18,4	13,9	23,2	14,2	16,3	5,4	4,1	3,7	27,4	12,1	10,6
45-54	30,9	23,7	7,8	4,5	24,3	20,8	6,4	10,4	5	9,2	2,6	6,4	2,3	14,4	20,7	10,5
55-74	60,5	72,3	0	3,2	16,3	6,5	3,7	15,4	0	0	5,7	2,9	4	11,1	9,8	18,5
>=75	52,5	45	4,9	0	1,5	10,6	4,2	7,4	1	3	0	2,6	0	12,1	30,8	16,9
<b>Guztira</b>	<b>28,5</b>	<b>20,4</b>	<b>3,4</b>	<b>2</b>	<b>25</b>	<b>15,4</b>	<b>8,6</b>	<b>15,7</b>	<b>7,6</b>	<b>10,4</b>	<b>5,1</b>	<b>4,9</b>	<b>3,3</b>	<b>16,8</b>	<b>18,6</b>	<b>14,4</b>
<b>Biak</b>																
16-24	3	0	0	0	8,5	6,3	11,3	30,1	14,9	8	13,3	9,3	14,2	10,1	34,7	20,9
25-44	4	3	3,9	0	28,4	15,4	13,9	24,9	11,4	23,3	5,1	3,4	5,6	26,9	27,7	17,8
45-54	22,8	21,2	7,1	3,6	21,6	21,2	11	12	5,9	8,7	4	5,7	6,7	14,9	20,9	13,8
55-74	45,1	28,1	0	1,4	7,9	9,7	8,4	11,4	1,5	7,6	7,8	3,2	5,4	20,2	23,9	24,1
>=75	38,2	35,4	1,8	1,9	2,1	8,7	3,8	5,4	3,2	2	1,8	1,8	6,7	16,2	42,4	27,7
<b>Guztira</b>	<b>20,8</b>	<b>17,6</b>	<b>3,7</b>	<b>1,7</b>	<b>17,6</b>	<b>14,5</b>	<b>10,5</b>	<b>16</b>	<b>7,4</b>	<b>2,8</b>	<b>5,4</b>	<b>4,5</b>	<b>6,9</b>	<b>18,4</b>	<b>27,7</b>	<b>19,3</b>

## 2.3 Mendekotasunak

### 2.3.2 | Tabako kontsumoa

Oro har, tabakoaren kontsumoa murriztu egin da, bai gizonetan bai emakumeetan. Hala ere, generoaren araberako analisisian, ikusten da handitu egin dela 16 eta 44 urte bitarteko gizonezko erretzaileen ehunekoa, baita 75 urtetik gorakoena ere; orobat, handitu egin da 45 eta 64 urte bitarteko emakumeen erretzaileen ehunekoa ere.

#### > Tabako kontsumoaren %, sexuaren eta adinaren arabera

	Ez du inoiz erre		Erretzaile izandakoa		Noizbehinkako erretzailea		Erretzailea	
	2013	2018	2013	2018	2013	2018	2013	2018
<b>E</b> ♀								
16-24	84,9	83,8	3,5	7,1	0	0	11,6	9,1
25-44	62,3	58,4	12	24,6	2,3	2,1	23,4	14,9
45-54	49,5	41,9	25,4	28,1	4,7	3,8	20,3	26,2
55-74	70,4	74,4	21,1	21,2	0	0	8,4	4,4
>=75	93,8	90,8	3,2	9,2	0	0	3	0
<b>Guztira</b>	66,9	64,2	15,1	20,4	2,1	1,7	15,8	13,7
<b>G</b> ♂								
16-24	83	80,3	9,7	0	0	3,6	7,3	16,1
25-44	55,5	62,6	10,9	10,8	7	0	26,5	26,6
45-54	38,9	53,3	30	27,2	1,1	2,6	30	16,8
55-74	36,4	28,8	40,7	58,7	0	1,5	23	11
>=75	42,9	49	53,6	38,1	0	0	3,6	12,9
<b>Guztira</b>	48,1	54,5	26,7	25,8	2,4	1,5	22,8	18,1
<b>Biak</b> ♂♀								
16-24	84	82,4	6,4	4,2	0	1,4	9,6	11,9
25-44	59,3	60,4	11,5	18	4,4	1,1	24,8	20,5
45-54	44,3	47,3	27,7	27,7	3	3,2	25,1	21,8
55-74	55,1	54,1	29,9	37,9	0	0,7	15	7,4
>=75	75,5	75	21,3	20,1	0	0	3,2	4,9
<b>Guztira</b>	58,4	59,9	20,4	22,8	2,3	1,6	19	15,7

## 2.3 Mendekotasunak

### 2.3.3 | Beste mendekotasun batzuk



Legez kanpoko substantzien kontsumoari dagokionez, EAE osoko datuak daude soilik, eta azkenekoak 2017koak dira.

#### Drogak hartzen hasteko adina

Oro har, gutxitu egin da drogak hartzen hasteko adina.



#### Kontsumoaren gorakada

2012ra arte sumatutako kontsumo prebalentzien murrizketek gora egin dute 2017. urteko datuetan.

Kontsumoaren prebalentzia handiagoa da gizonezkoetan emakumezkoetan baino, psikofarmakoetan izan ezik.

#### Jokoarekiko mendekotasuna

2012tik 2017ra, bederatzi aldiz handitu da kirol apustuetan astero jokatzen dutenen ehunekoa.

x9



#### Interneten erabilera

Interneten erabilerari lotutako arrisku praktiken ehunekoa % 3tik % 5era igo da.



# 3 |

## Harreman sozial eta komunitarioak




### 3.1 Parte-hartze soziala

Oro har, donostiarrek badute ohitura boluntario lanetan parte hartzeko, modu formal edo informalean; ohitura hori, antzeko samarra bada ere, Bilbon eta Gasteizen baino handixeagoa da; zehazki, biztanleriaren hamarrena aritzen da gobernuz kanpoko erakundeei laguntzen. Hala ere, asoziazionismoari dagokionez, lanean jarraitu behar da, Europako ikuspegiak kontuan hartuta; hain zuzen, Eskandinaviako herrialdeak eta Herbehereak nabarmentzen dira, biztanleen % 40k parte hartzen baitu boluntario jardueretan. Hala ere, nabarmentzekoa da 2010etik gora egiten dutela Donostiako Udal Erregistroan inskribatutako elkarteak.

> elkarteak (%), tipologiaren arabera

- Irakaskuntzaren arlokoak
- Familia izaerakoak
- Gazteenak
- Sozioekonomikoak
- Auzokoak
- Laguntza izaera orokorrekoak
- Kultura arlokoak




**Erdiak baino gehiago kultura elkarteak dira**

### 3.2 Kultura


**Hiriak eskaintza publiko eta pribatu handia du kultur ekipamenduetan, baina bereziki publikoa;** hor biltzen da Udalaren esku hartze soziokultural handiena. Museoak, auditoriumak, antzokiak, 18 liburutegi, Donostiako auzoetan banatutako 10 kultur etxe.

Hurrengo irudietan, argi ikusten da gero eta jende gehiagok erabiltzen dituela hiriko kultur eskaintzak.

> Azken 10 urteetako bazkide kopuruaren bilakaera




> Abonatuen %, generoaren arabera



### 3.3 Plus 55

+55 programa Udalaren ekimen bat da, gizarte ekintzako zuzendaritzaren barruan dago, eta adinekoen parte-hartze soziala eta zahartze aktiboa sustatu nahi ditu. Batez ere, aisialdiaren eta astialdiaren eremuan oinarritzen du bere jarduera, eta hainbat baliabide komunitariotan kokatzen da (kultur zentroak, Udalaren Musika eta Dantza Eskola eta Topalekua). **Askotariko jarduerak egiten dira, naturarekin, jarduera fisikoarekin, literaturarekin, musikarekin, teknologia berriekin, osasunarekin eta bestelakoekin lotuak** Grafikoan ikus daiteke gora egin duela ekimen horren erabiltzaile kopuruak.


#### > Plus55 ekimenaren erabiltzaile kopurua



### 3.4 Donostia Lagunkoia

Donostia Lagunkoia hiri plan bat da, adin guztientzat atsegina izango den hiri bat eraikitzea helburu duena. Donostia Lagunkoia, adinekoak protagonista diren parte-hartze komunitarioko mekanismoen bidez, bizi itxaropena handitzeak eta biztanleria zahartzeak zer erronka eta aukera dakartzan aztertzea eta ikuspegi partekatu bat diseinatzea sustatzen du. Ikuspegi integral, sistemiko eta sailarteko batekin egiten du lan, inguruko pertsona eta erakunde publiko eta pribatuak barne hartuta.

Lau ardatz nagusi ditu:



Hirugarren ardatzaren inguruan ("zaintzen duen komunitatea"), hainbat proiektu sortu dira eragileekin koordinatuta, hala nola: Erlauntza eta Lagunkoia Farmaziak.



### 3.5 Lagunkoia farmaziak

Lagunkoia farmazien helburu nagusia da farmazialariek udalerrietan beren eginkizun komunitarioa betez egiten duten lana sustatzea, intereseko eragileekiko komunikazioa erraztuz (osasun zentroak, gizarte laguntzako zentroak, eta abar).

Ekimen honetan, parte-hartze prozesu bat egin zen, farmazia lagunkoiaren kontzeptua modu kolektiboan eraikitzeko. Prozesu horretan, adineko pertsonak, farmaziako erabiltzaileak, farmazialari komunitarioak, enplegatu publikoak, gizarte eta osasun profesionalek parte hartu zuten.

Gipuzkoako Botikarien Elkargoak akreditatutako hamazazpi farmazia daude Donostiako Lagunkoia programan sartuta.




### 3.6 Erlauntza

Udalaren Osasuna Sustatzeko Atalak duen proiektu operatiboena da. Auzoen bidez eratutako taldeak dira, eta udal ataletako langileek, eragile komunitarioek eta bestelako erakunde publiko edo pribatuek osatzen dituzte. Osasuna sektoreen artean lantzen dute, auzo bakoitzaren beharretara egokituta eta ongizatearekin lotutako ikuspegi positibo bat hartuta.

#### > Erlauntzaren bilakaera taula

	Auzoa
2018ko urtarrila	Egia Inxaurrondo
2018ko iraila	Alde Zaharra Gros
2019ko urria	Altza Bidebieta




Gaur egun, Erlauntza hiriko sei auzotan dago martxan. Taldearen garapenaren arabera, pixkanaka eragile berriak sartzen ari dira.

### 3.7 Emakumeen Etxea


Donostiako Emakumeen Etxea emakumeen topaketarako, eztabaidarako eta gogoetarako gune bat da, eta haren helburua da bizitzaren arlo guztietan emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasun eraginkor bat lortzea helburu duten politika, programa eta proiektuetan eragitea. Alde batetik, desberdintasun hori desagerrarazteko borrokatzen diren kolektibo eta elkarte guztien artikulazioa sustatzen duen gune bat da etxea, eta, horretarako, indarrak eta sinergiak sortzen dituen topagune bat eskaintzen du.

**Emakumeen Etxeak gero eta emakume gehiago biltzen ditu, beste emakume/errealitate batzuk ezagutzeko eta emakume gisa sozializatzeko eta ahalduntzeko aliantzak egiten laguntzeko.**

#### > Erabiltzaileen/bazkideen bilakaera



#### > Erabiltzaileen adina %



Eremua gero eta protagonismo handiagoa hartzen ari da hirian, eta azken urteotan gorantz egin du bazkide kopuruak.

### 3.8 Kultur aniztasuna

Hiriak gero eta kultur aniztasun handiagoa du, eta Udala elkar ezagutzea eta bizikidetza sustatzen saiatzen da, hiri ireki eta indartsu bat eraikitzeko. **Donostian 130 herrialde baino gehiagotako herritarrak bizi dira, eta hori aktibo handia da hiriarentzat.**




### 3.9 Haurtxokoak, gaztelekuak eta Kontadores

Espazio horietan, haur eta gazteei prestakuntza jarduerak eta programak eskaintzen zaizkie, aisialdiaz beste modu batera goza dezaten. E Espazio horiek bereziki garrantzitsuak dira, gizarte sareek osasun portaerak modulatzeko baitituzte; portaera horiek haurtzaroan eta, batez ere, nerabezaroan finkatzen dira.

#### Haurtxokoak

5 eta 11 urte bitarteko haurrentzako guneak dira, jolasaren eta sormenaren bidez sozializatzeko pentsatuak. Astean behin, gurasoekin parteka ditzakete jarduerak.

#### > Bazkide kopuruaren bilakaera




Espazio horien eskaintza gero eta handiagoa den arren, horiek erabiltzen dituzten haur eta gazteen kopuruak joera egonkorra du. Datu hori positiboa da, jaiotza tasa gero eta txikiagoa baita.

### 3.9 Haurtxokoak, gaztelekuak eta Kontadores

#### Gaztelekuak

12 eta 17 urte bitarteko gazteentzat dira. Espazio horietan, gazteak beren adinari dagozkion jarduerak eginez gizarteratu daitezke, eta gazte batzar bat ere badute, hilero egiten dena.


#### > Bazkide kopuruaren bilakaera



#### Kontadores

18 urtetik aurrerako gazteek Kontadores zentroa dute eskura. Azken bi ikasturteetan, zentro horiek erabili dituzten gazteen kopurua nabarmen handitu da.

#### > Erabiltzaileen konparazioa



### 3.10 Goizaldiak eta zahar etxeak

**Goizaldiak Gizarte Ekintzaren zerbitzu bat da. Hainbat zentrotan ematen da, eta adineko pertsona ahulenen autonomia zaindu nahi du, haiek ohiko ingurunean eta, batez ere, sare sozialak mantenduta. Horretarako, hainbat jarduera egiten dira, sozializazioaren bidez zahartze aktiboa bultzatzeko.**

#### > Goizaldiak zerbitzua

	Auzoa
2015	Egia / Bidebieta / Loiola
2016	Egia / Bidebieta / Alza
2017	Egia / Bidebieta / Alza
2018	Egia / Bidebieta / Alza / Gros
2019	Egia / Bidebieta / Ala / Gros

Zerbitzu hori, 2015. urtean sortua, hainbat auzotara zabaldu da pixkanaka.

Gainera, erretiratuen etxeen bidez, **Gizarte Ekintza elkarlanean aritzen da hiriko auzoetako erretiratuen 23 elkarterekin, udal titulartasuneko lokalak utziz, finantzaketa ekonomikoa eskainiz eta, bereziki, haien autoantolaketa sustatuz, laguntza teknikoko zerbitzu baten bidez.** Azken zerbitzu horrek, gai administratiboetan ez ezik, lagun egiten die zentroen lagunkoitasuna hobetzeko prozesuetan. Alde horretatik, adinekoen parte-hartzea handitu egin da hiriko ekimenetan, eta hiriko eragileekin edo kanpoko eragileekin konexio berriak egiteko proposamenak sortu dira.

# 4

## Bizi baldintzak





## 4.1 Ingurune fisikoa

### 4.1.1 | Ingurumen baldintzak

Hiriguneetako ingurumen arazoak eremu txiki batean kontzentrazio demografiko handia izatearen ondorio dira, nagusiki. Eragin ohikoenetako batzuk kutsadura akustikoa, airearen/uraren kalitatea eta hiri hondakinak dira.

#### Airearen kalitatea



Airearen kalitatea ona edo oso ona dela baloratzen da, jasangarritasunari buruzko azken urteko txostenean jasotakoaren arabera.

95,8%

Batez besteko egunak.

#### Kutsadura akustikoa



Gomendatutakotik gorako zarata jasaten duten biztanleak.

12%

Nabarmentzekoa da ehunekoa pixkanaka jaisten joan dela 2012az geroztik.

#### Uraren kalitatea



Uraren kalitatea ontzat jotzen da hornidurako uretan. Herritarrek oso balorazio positiboa egiten dute uraren kalitateari buruz.

Nabarmentzekoa da azken urteotan biztanleko ur kontsumoa gutxituz joan dela pixkanaka.

#### Birziklatzea eta hondakinak



1,20

Hondakinen batezbestekoa, kg/biztanle /egun

% 37 gaika biltzen dira

0,45 kg/bizt./egun inguru


Gaikako bilketa handituz joan da azken urteotan. Hondakinak ere zertxobait gehiago sortu dira.

## 4.1 Ingurune fisikoa


### 4.1.2 | Herritarren segurtasuna

Bilbon eta Gasteizen baino delitu tasa txikiagoa du Donostiak, baina Gipuzkoako batez bestekoa baino handixeagoa. Oro har, herritarrak seguru sentitzen dira, pertzepzio inkesten arabera; hala ere, badira desberdintasunak gizonen eta emakumeen artean, azken horiek gizonek baino segurtasun gutxiago sentitzen baitute.

#### > Emakumeak zer tokitan sentitzen duten segurtasun gutxien



#### > Zer egoeratan ez diren seguru sentitzen



Altzan eta Egian daude hiriko puntu kritiko gehienak.

## 4.1 Ingurune fisikoa

### 4.1.3 | Etxebizitza

#### Pertsonen batez bestekoa, etxeko

Hirian, batez beste, **2,4 pertsona** bizi dira etxe bakoitzeko. Hala ere, arreta auzoetan jarritz gero, ikusten dira desberdintasunak.

2,4



pertsona  
etxeko

#### > Hiriko batez bestekoaren gainerik dauden auzoak

Auzoa	Batez bestekoa
Miramón-Zorroaga	3,5
Igeldo	2,8
Aiete	2,8
Ategorrieta-Ulia	2,7
Ibaeta	2,5
Añorga	2,5
Loiola	2,5
Zubieta	2,5
Intxaurrondo	2,5
Altza	2,5

#### > Hiriko batez bestekoaren azpitik dauden auzoak

Auzoa	Batez bestekoa
Gros	2,2
Erdialdea	2,2

Gainera, auzo horietan daude pertsona bakarreko etxe gehienak.


## 4.1 Ingurune fisikoa

### 4.1.3 | Etxebizitza

#### Irisgarritasuna

Etxebizitzen irisgarritasunari dagokionez, aipatzekoa da **Donostian 65 urteko edo gehiagoko eta 80 urteko eta 80 gehiagoko biztanleria gero eta handiagoa dela eta gehiago izatea aurreikusten dela.** Bizitegi ingurune irisgarrietako elementu garrantzitsuenen artean, azpimarratzekoa da altuerako eraikinek izaten dutela igogailua.

#### > Donostiako igogailurik gabeko etxebizitzak



> Igogailurik gabeko bi solairu edo gehiagoko etxebizitzetan bizi diren biztanleen banaketa, Udalerriko batez bestekotik gora

Auzoa	%
Altza	26,6
Martutene	25
Intxaurrondo	24
Egia	18
Ategorrieta-Ulia	14,7
Erdialdea	13,5
Miracruz-Bidebieta	12,2


## 4.1 Ingurune fisikoa

### 4.1.4 | Mugikortasuna

#### DonostiaBus

Hiri barruko joan-etorrietan, autobusa da garraiobide kolektibo nagusia. 2014az geroztik, urtean DBusen egiten diren bidaiak gora egin dute pixkanaka, eta **2018an 29 milioi baino gehiago ere egin ditu.**

#### > Dbus-en erabiltzaileen bilakaera



Nabarmentzekoa da 2018an erabiltzaileen % 68 emakumeak izan zirela, eta % 32 gizonak.

## 4.1 Ingurune fisikoa


### 4.1.4 | Mugikortasuna

#### Bizikleta eta bidegorri sarea

Osasun portaeren atalean azaldu bezala, gero eta gehiago erabiltzen da bizikleta hirian. Bidegorri sarea handitzeak ere eragin du igoera hori; urte batetik bestera aldatu egiten da eraikitako bidegorri kopurua, baina 2010etik nabarmen metro gehiago eraiki dira.

#### > Bidegorri sarearen bilakaera

Metatutako metroak



Metatutako metroak

77.380

## 4.1 Ingurune fisikoa

### 4.1.4 | Mugikortasuna

#### Desplazamenduak

**Garraio motordunak desplazamenduen % 90 hartzen du;** desplazamenduen % 4,5 multimodalak dira, eta % 4 inguru motorrik gabe egiten dira (bizikletaz edo oinez) (2016. urtea). Autoak desplazamenduen erdiak baino gehiago hartzen ditu, ondoren autobusa erabiltzen da, **ia % 20 (linea erregularrak, hirikoak eta hiriartekoak eta eskatu ahalako autobusak barne direla), EAEko hiru hiriburuetatik ehuneko handiena.** Trenez egiten diren desplazamenduen % 10 inguru dira.

#### > Garraio motordunak




## 4.2 Baldintza sozioekonomikoak

### 4.2.1 | Errenta pertsonala

Hiriko batez besteko errenta pertsonala 19.750 eurokoa izan zen 2016. urtean, eta 20.486ra handitu zen 2017an. 2017an, alde handia egon da auzo batetik bestera; azpimarratzeko datuak dira Miramon-Zorroagan 33.752 euroko errenta dutela pertsonako, eta 14.573 eurokoa Altzan.

Gainera, generoaren arabera ere aldatzen da errenta: 2017an, 16.979 eurokoa zen emakumeen batez bestekoa, eta 24.581 eurokoa gizonena. Errenta handiena duten emakumeak ere Miramon-Zorroagan eta Aieten bizi dira; gizonezkoak, berriz, Antiguan eta Aieten.

#### > Batez besteko errenta, auzoka






## 4.2 Baldintza sozioekonomikoak

### 4.2.2 | Familia errenta

2016. urtean, familia errenta 40.708 eurokoa izan zen, eta 2017an 41.732 eurora igo zen. Auzoen artean alde handiak daude: nabarmentzekoak dira Miramon-Zorroaga, batez besteko familia errenta 89.559 eurokoa baita, eta Altza, familia errenta 29.831 euro baita.

#### > Familia errenta, auzoka




## 4.2 Baldintza sozioekonomikoak

### 4.2.3 | Langabezia tasa

2016an, langabezia tasa % 12 zen, eta 2017an nabarmen gutxitu zen, % 9ra, hain zuzen. Loiolan, Intxaurrondon eta Altzan dago langabezia tasa handiena, eta Miramon-Zorroagan eta Antigua txikiena.

Alde txiki bat dago generoari dagokionez; emakumeetan % 10 da langabezia tasa, eta gizonetan % 9. Era berean, langabezian dauden emakumeen kopuru handiena Loiolan eta Altzan biltzen da, eta gizonena, berriz, Loiolan eta Intxaurrondon.

> % guztizko langabezia tasa 2017an




# 5

## Gizarte, kultura, ekonomia, ingurumen arloko politikak



Udaleko atal guztiak aztertu ditugu, horietako bakoitza osasunaren determinatzaile sozialen ereduko zer geruzatan kokatzen den ikusteko. Zenbat eta gorago kokatu, eragin handiagoa dute osasunean, geruzek katean jarduten baitute; kanpokoak du eraginik handiena, eta behean geratzen diren guztiak aldatzen ditu.



## Alkatetza

**5. geruza**  
Zeharkakotasuna.

## Lehendakaritza

**5. geruza**  
Belarri proiektua, gardentasuna, web komunikazioa, hizkera argia komunikazioan, hitzarmenak beste sektore batzuekin, ideia berritzaileak babestea udalean.

## Mugikortasuna


**4. geruza**  
Garraioa, kutsadura akustikoa, hiriguneak oinezkoentzat jartzea, bidegorriak, hiriko trafikoa gutxitzea.

## Udaltzaingoa, Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zuzendaritza

**4. geruza**  
Herritarren segurtasuna.  
Herritarrekiko harremanak sustatzea.

## Donostiako Sustapena

**4. geruza + 5. geruza**  
Garapen ekonomikoa, talentua, ikerketa eta teknologia berriak. Eragin handia lan baldintzetan.



## Gizarte Ekintza

**3. geruza + 4. geruza**  
Udal zerbitzuetarako sarbidea eta lankidetzaren udalerako erakunde autonomoekin eta elkarte komunitarioekin.

## Hirgintza

**4. geruza**  
BOE etxebizitzak, alokairuak, irisgarritasuna eta energia eraginkortasuna. Etxebizitzaren trukaketa. Jasangarritasun irizpideetan oinarritutako jokararen moldaketa.

## Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren Zerbitzua eta Euskara Zerbitzua

**Integrazio ardatzak**  
Integrazio ardatzak jorratzen dituzte: adina, generoa, nazionalitatea eta hizkuntza, Oroimen historikoa eta giza eskubideak.

## Osasuna eta Ingurumena

**2. geruza + 4. geruza + 5. geruza**  
Klima estrategia. Elikagaien segurtasuna, izurriteak, kerik gabeko guneak. Haur obesitatea eta tabakismoa nerabezaroan.

## Donostia Kultura

**3. geruza + 4. geruza**  
Kulturguneak sortzea eta horien inguruko sare komunitarioak sustatzea.

## Donostia Kirolak

**Integrazio ardatzak + 2. geruza**  
Bizi estiloak jorratzea.

## Kontuhartzaitza eta Kontabilitatea; Finantza Zuzendaritza; Ekonomia Kudeaketaren Zuzendaritza

**Integrazio ardatzak + 5. geruza**  
Baliabide ekonomikoak, gizarte politikak sortzeko eta mantentzeko; baldintza sozioekonomikoak hobetzea; parte-hartze komunitarioa gehitzea aurrekontuetan eta genero ikuspegia sartzea haieran.

## Hiri Mantentze eta Zerbitzuak

**4. geruza**  
Irisgarritasuna, hondakinak eta birziklatzea, hondartzaren kutsadura, berdeguneak sortzea, pestiziden erabilera gutxitzea, eguzki bidezko kaleko argiak, eta abar.

## Musika eskola

**3. geruza**  
Lankidetzaren proiektuak egitea DLrekin, Musikenekin, Dantzertirekin, eta xede soziala duten emanaldiak areagotzea.

D·SS 



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN  
Osasun Sustapena  
Promoción de la Salud

